


KRO KOMIKS ESPEZIALES
PRESENTA A FERNANDOSKI CON:

AFTER BOLCHEVIQUE




AFTER-BOLTXEBIKE

Ez ziren garai onak
Basko-bike pila
Zaristek galdu zuten
zeukaten nagia.
Gasteizgradon zuriak
arazo larria
Bilbof askatu zuten
kosako gorriak.
Donostigrado ere
izan zen askia
Iruinakov herrian
bandera gorria.
Herriak hartu zuen
negu jauregia
hantxe ikusi nuen
Iñakiskidea.

Biktoria egunean
zioen garraisia:
Gora euskal-rusoak ta
bodkaren grazia.
Iñakiski egin zuten
Soviet buruzagia
nork pentsa holakorik
gizon demontria!
Ai! Ihes egin zuen
Soviet etekinaz
Jamaikan etzanda da
hartzen eguzkia.
Atzetik joan nintzaion
ziztu bizi-bizian
hantxe aurkitu nuen
palmera azpian.

Arma atera zuen
nik ere neria
bi bala sartu ziren nere gorputzian.
Baina jakintzak Iñakiski:
BI PUTA BALA EZ DIRELA NAHIKO
AFTER-BOLTXEBIKEA HILTZEKO

After-boltxebike!
After-boltxebike!



ETXERAT (86ko Azaroa)

Ze arraiot motellak
jarri freskatzen
sagardo botailak

Emaiok kaña
sakaiok fuerte
bagoazela etxerat!

Zenbat denbora!
Eta abentura!
Kilometrotan zer esan

Gure furgioan
etengabe
Redskinsen kantua:
Txeki txeki txeki txek txek txek

A ze sorpresa!
Ez da mugitu!
Sasizko muga alua

Mendi zelaiak
Fabrikak ere
eta hormetan afixak

Zurikerien
txapeldun horiek
botuen truke agurra

Etzaigu axola
etxerat goaz
doazela pikutara

A.E.K.-KO VETERANOAK

Kaixo Bixente! Hementxe gaude, zu jarrita ta ni tente.
Gezurra esan nun Getarin, ni baño leenago zan atarin.
Nahaste borrhaste, azak eta nahaste. Amezketarra, tirri-tarra,
gaztainak jan ta bota puzkarra.
Itzak ederrago, egiñak baino. Erranak eder, eginak lander.
Esana erraz, egina garratz. Zozoak beleari: "ipurbeltz".
Burririk ez, txapela nahi. Egia askoren erregarria.
Epelak hartuko dituzu. Neu nagusi ala muturrak hausi.

A.E.K.ko Veteranoak.

Kaixo Bixente! Hementxe gaude, zu jarrita ta ni tente.
Impernuko etsaia. Jesus! Tokitan dago.
Urte askoan, txapela kaskoan. Ustea, erdi ustela. Arrain handiak
jaten du tipia. Arraioa! Ezinak ez du legerik.
Zure etsairik haundiena, zure burua lehenena.
Egin zak lo, ta jango dek me. Yende ederra, yende alferra.
Auskalo jun da buskalo. Felixen osaba, Drabasaren antena.
Urria esan, eta urria izan. Gureak egin du!

A.E.K.ko Veteranoak.

"Gaur forjariak lana utzirik, gatoz guztiok kalera"
Oskorriren kantak, "Drogak A.E.K.n" eta Kaxianoren itsua.
Putiña, aldamera, ihaus, alporra...
"Su emango diogu geure fabrikari, eta nagusiaren etxe guztiari".

A.E.K.ko Veteranoak.

TOLOSALDEKO aek

Txekor eder baten zozketa

Txekorra nahi ez duenak, txekorrak balio duena
dirutan jasotzeko eskubidea izango du.

MARTXOAK 4an itsuekin zozketa-
tuko da, ozkeneko lau zenbakiekin.

Laguntza: 100 pxta.

Hilabeteke epa. N: 08858



OKER NAGO

Ez daukat gogorik
ezer egiteko
oker al nago?
Nahiago dut
begiratu
eta ez ikusi.
Izorratuta nago!
Ba ote irtenbiderik?
Oker al nago?
Oker nago.
Ta zenbat aldiz...
Bat...
Bi...
Hiru...
Lau...
Bat, bi, hiru, lau...
Izorratuta nago!
Ba ote da irtenbiderik?

Travis bezala
chevrolet gorriaren bila
ni joango naiz.
Paris-Texas,
Irun-Mosku,
edo antzeko zerbait...

Izorratuta nago!



DENBORAREN MENPE


Nire aterpetik irten naizelako, pertsona bati ordua eskatu diot,
gaur oparitu didate erloju bat. Pentsatu dut, orratzei begira:
denboraren poderioak irabazi naula, ea ez ote den opari ona.
Nahiz eta zulo beltza bilatu, denboraren mugak ez dira eroriko.
Denboraren menpe.

Nire burua babestu behar dudanez, eta iragana da oso azkarra,
karrera bat egingo diot, lehenaldia eta oraina nahastuko dira.
Berandu dabilela, esango dit: untxi batek, Aliziak eta guzti...
Eta orain berriro nahasi egin naiz, nostalgia denboraren mina.
Denboraren menpe.

"Lehenaldia kontrolatzen duenak, orainaldia kontrolatuko du.
Orainaldia kontrolatzen duenak, etorkizuna kontrolatuko du".
Botere berri horrek beldur ematen-dit, menpetasuna okerrera.
Hemen galdu dut nire apostua, halere ospatuko dut edozein tabernetan.

Eta orain berriro nahasi egin naiz, nostalgia denboraren mina.
Eta orain berriro galdu egin naiz, iragana denboraren mina.





Gernika 37-87

GERNIKA 37-87

Mila ta bederatzirehun hogeita hamazazpigarren urtea, oroitzapen batzu ez ezik beste urte bat, ez besterik.

"Hil ezinak dira hitzak izan arren zaurituak" bere jaioterritik urrun gogora ezak Alberti Moskun. Gernika errea, bonbaketatua haritz zaharrak zutik dirau, nahiz eta usteltzen egon gaur, paktu faltsuen ikusie. Gernika, gure buruan!

Urte latza hura Txina-japoniarrak elkar joka inglesekin Palestinan sortu zuten buka ezinezko guda, Gaur dakusat egunkarian heriotz bonbak palestinarren gain.


"Detroitoko bomba beltza" ez zen U.S.A.-ko hegazkin bat boxeo munduko garailea baizik. Galde ezaio Joe Louis-i: Bomba batzuk dezaketen Sowetoko garraisia isilarazi.

Hogeitamazazpia beste urte bat larogitazazpiaren antza, besterik ez. Galduko dutela badakite ikusi nahi ez izan arren. Gernika, gure buruan!

El régimen racista sudafricano mata en París.— La representante en París del Congreso Nacional Africano (CNA), Dulcie September, fue muerta a tiros ayer en la capital francesa, un atentado del que las sospechas recaen sobre el régimen racista sudafricano, aunque éste haya negado tener algo que ver. Dulcie September estuvo el año pasado en Euskadi con ocasión de la campaña «Gernika 37-87».



Combatiente sandinista en la ofensiva final (1979).



EHUN GINEN

Beyrouth sartaldea
uraren ordeztu hautsa
eta bost mila izar gehiago gauetz
norien alboan
damasko irratian rock the cashbah
fedayinen auzunean ramadan
garorik gabeko basamortuak inguratzen du
sortaldeko Beyrouth
hondarrezko gartzelan
itzalik gabe pasiatzen dira maiteminduak
norien alboan
barraka itxiek
ezinaren mugak laztantzen dituzte.

Zelako krisi
halako bizi
Beyrouthen ez da inor bizi!
100 ginen
22
orain bakarrik gaude 2
Zelako krisi
halako bizi
ezin gaitzke superbizi!
100 ginen
22
orain bakarrik gaude 2
zu ta ni, zu ta ni, zu ta ni, ninininini!!
ZELAKO KRISI!!

PLATINOZKO SUDURRAK

Mila bederatzirehun larogeitazazpi
Antolin iritsi da Reinosatik ihesi
Reinosatik ihesi estu ta larri
Ardantzak eman dio marra bat sustantzi (bis)

Entonatu dago Lan-ministroa
—“euskaldunek duzuen suministroa!”
—“Oi ze suministroa eta gustoa”
—“Orain klaru ikusten dut gure asuntua” (bis)

Antolin, Joxantonio eta “Pequeño”
Gobernuaren bila jarri enpeino!
Jarri dute enpeino ta zerbait gehio
bakoitzarentzat bazen hiruna lerro (bis)

—“Lerro bat Colombiatik!”, —“Bi Boliviatik!”
—“Psozialmaleta edo”, —“Casa Vascatik”
—“Sudurrak jartzen zaizkit bero ta gorri”
—“Amsterdamen daukate platino aski” (bis)

Hauts artetik gobernu baskongadoa
lerro artean letu haien trataoa
Buruari jartzea a(ha)ztu dute KASKoa
Haiek lerroak eta guk bost puntuak (tris)



Las chicas de Txiki.



CADWELL (IDAHO) USA. 18.3.88. -El lehendakari Ardanza sobre un caballo con el señor Simplot, uno de los empresarios más importantes de Estados Unidos con quien Ardanza ya entrevistó. Ardanza se encuentra en EE.UU. en visita oficial. -TELEFOTO EFE. Ruiz de Azua



REINOSA



MAKURTU GABE

Kontserba latak eta kaferako filtro barazki poto eta olio lau litro. eta gainera ere zenbait kilo hirin azukre, arroz eta hortzetako zirin. Lau gailleta pakete bi tomate lata sobrezko zopak eta italiako pasta. Lixiba egiteko pakete handia, baxera egiteko bestea ttipia. Tetrabriketan ardo eltzetan babarrun makailua jateko kantauri da urrun. Jinebraren ondoan dago patxarana, ostikadaren kolpez lurrean etzana.

ZUTIK! MAKURTU GABE!

Arranoa zeruan mendian sugea ibailetako ura ahitzen ote da? Basotan perretxiko sororan garia. "NAHIZ HANKA BANA HAUTSI, BERRIAK BADIRA"

Txomin, lehendakari

El mismo día que hemos visto programar el lehendakari de la Euskadi colaboracionista con el ocupante, nos hemos enterado de la desaparición del lehendakari de la Euskadi de la resistencia, de la Euskadi que no se rinde. Pero sabemos todos que Txomin no ha muerto. Está aquí, con nosotros. Es Ardanza quien no existe.

Marc LEGASSE



WASHINGTON, D.C., MARCH 22 - President Reagan accepts a Basque walking stick from Jose Antonio Ardanza, president of the Basque Region of Spain, in the Oval Office March 22. The walking stick is a traditional symbol of authority, order and respect. REUTERS White House 1988

KOLPEZ KOLPE

Zalditeria dabil gure kontra gora pake pipa erretzeko hau ez da denbora Jeronimo gurekin zutik egongo da gerrarako haizatuz lurpeko aizkora

KORTATU kolpez kolpe

Gladiadore berriak betiko moduan zirko berbera dabil gure inguruan bankuetxe, gobernu ta parlamentuan orduko Julio Cesar hara non dagan

KORTATU, kolpez kolpe

Abordaje berri bat gaur dugu egingo gure drakkar zaharrean gara hiru bikingo adarrez hil ditugu mila santu-jainko inperio zahar-berria dugu desegingo

KORTATU, kolpez kolpe

Aizkolari handia txikito Aiako harentzat kirol zena gaur borrokarako kitarrariak zorrotz goikoen kontrako basoan mila enbor utziz burubako

Zalditeria dabil gure kontra gora zirko berbera dabil gure inguruan kitarrariak zorrotz goikoen kontrako inperio zahar-berria dugu desegingo.

eutsi goiari!

Aiako Txikia enborrak ezin kortatuz (Zarautz, 1925)



Leon Uguet etxeko «hainak» erretze- lantze algaratu.

Aiako txikia gaur eta biher hain egundeko eranda jaurri den Jose Arribas Krutier 1925. urtean 12 urte-berria eta 6 urteko zaharrez zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean.

Leon Uguet gaur eta biher hain egundeko eranda jaurri den Jose Arribas Krutier 1925. urtean 12 urte-berria eta 6 urteko zaharrez zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean.

Aiako Txikia gaur eta biher hain egundeko eranda jaurri den Jose Arribas Krutier 1925. urtean 12 urte-berria eta 6 urteko zaharrez zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean. Zuzenak urteko gaur Leon Uguet Aiako Txikia eta, orduko hainak gaur eta biher hainak zuzen lehengo urtean.



Olasagasti jo ta ke enbor gainean laguntzaileen aholkuak jasoz.